



## 700 haur eta gazte ari dira euskal dantzak ikasten bi eskualdeetan

**ESKOLAK** ▶ Eskaintza zabala dago herri gehienetan;  
heldu askok ere eman du izena ikasturte honetan ▶ 2-3



Gazteboak, helduak eta ikastetxeetakoak batuta, 1.000 lagunera arrimatzen dira dantza ikasleak. HITZA

VILLABONA-ZIZURKIL ▶

## Pultsulariak bikain Espainiako 17 urte azpikoen Txapelketan

Danena-Olaederra taldeko Sasiain  
anaiek urrezko domina jantzi zuten ▶ 7

LARA LOPEZ ▶  
LA CAIXA BEKA

«Berria jakitean  
loteria egokitu  
zitzaidala  
pentsatu nuen»

Gatazken gaineko  
ebazpena eta  
bitartekotza masterra  
egingo du tolosarrak ▶ 5



Lara Lopez tolosarra. HITZA

TOLOSA ▶

## Ezustekoa ematekotan izan da Hegoalde, baina nahi eta eta ezin

Irabazten hasi arren, azkenean  
3-5 galdu zuen Mostolesen aurka ▶ 6

- ▶ HITZAren harpidedunen artean  
**GORROTXATEGI**ren eskutik  
Gabonetako saski eder bat  
zozketatuko dugu.



DANTZA ▶

# Euskal dantzak ikasten

Eskaintza zabala da eskualdeko herri gehienetan; 700 haur eta gazte inguru ari dira une honetan ikasten; dantzari taldeetako kideak dituzte irakasle

JOXEMI SAIZAR

Urtero-urtero ehunka haur eta gazte aritzen da euskal dantzak ikasten. Une honetan 700 inguru ari dira, eta helduekin eta Uzturpe ikastolakoekin batera 1.000 lagunetara arrimatzen dira dantza ikasleak. Dantza taldeetako kideak —Amezketako Arkupe, Ibarako Alurr, Lizartzako Otsolar, Tolosako Udaberri eta Villabonako Oinkari— kon-tuan hartu gabe. Aspalditik datorren jarduerak honak gorabehera asko izan ditu azken urteotan. Azkenaldian dantzari taldeen inguruan bildu dira dantza ikastaroak eta eskualdean hiru dira nagusi: Alurr, Udaberri eta Oinkari. Beraien herrietaz gain, talde hauetako kideak inguruko beste hainbat herritan ere aritzen dira bere ikastaroak ematen.

Ikasleak normalean astean ordutebe edo ordu eta erdi —helduxeagoek— aritzen dira jarduerak honetan. Lehendabizi beroketa ariketa batzuk egin eta ondoren dantzen pausoak lantzen dituzte. Dantza errazetarik hasten dira. Txikienak Ipurdi dantza, Txulalari, Ikurrin dantza, Zazpi jautzi, Agurra, San Joan eta horrelakoekin hasten dira. Geroago dantza zailxeagoekin hasten dira, eta badira dantzari taldeetara pasatzen direnak ere, baina «hori ez da helburua» taldeetako arduradunek esan dutenez.

Herr handienetan aipatutako taldeak arduratzen dira antolatuz. Herr txikiagoetan udalak —Aduna, Altzo, Anoeta, Irura...— edo guraso elkarteak —Areso, Alegia, Berastegi, Ikaztegieta...— izaten dira monitorea deitu eta ordaintzen dituztenak. Kasu batzuetan ikasleei matrikula edo kuota bat kobratzen diete.

Urte osoan ikasten aritu ondoren jendaurreko saio batzuk egiteko aprobetxatzen dute: herriko eta inguruko jaietan, Dantzari Txiki Egunetan... Horrelakoetan dantziak eta musikariak lortzeko nahiko lan izaten dute. Askotan dantzari taldeei eskatzen dizkiete.

## Herriz herri irakasten

Alurr dantzari taldeko zortzi kide ari dira dantza irakasten une honetan. Ibarraz gain, Altzoko, Berastegiko eta Berrobi-ko haurrekin ere ari dira lane-



Alurr taldeko ikasle txikienak euskal dantzaren lehen pausoak ematen. JOXEMI SAIZAR

an. Ibarren eta Altzon aritzen da Eider Epelde. Urte batzuk badaramatza horretan, baina Altzon iaz hasi zen. Fandango eta arin arinarekin batera, Iparalde, Gipuzkoa eta Bizkaiko dantzak ere erakusten ditu. Emanaldiak Altzon bertan, Ibarren, Berastegin eta Arrasaten egin izan dituzte. Urtero lauzpabost izaten dituzte. «Herrietan erakusten ibiltzen garen Alurreko monitorea hilean behin elkartzen gara koordinatuzko, nola irakatsi jakiteko eta arazoan aurrean nola jokatu jakiteko», esan du Epeldek.

Udaberri dantzari taldearen ikastaroetan sei monitorea ari dira. Aritz Iglesiasek lauzpabost urte daramatza irakasten. «Nik ere ikastaroetan ikasi nuen eta gero irakasle izatera iritsi naiz. Ikastaroak goraka doaz. Aurtun matrikula kanpaina berezia egin genuen eta iaz 35 izatetik 130 izatera pasatu gara», dio. Urtean zehar Tolosan bertan ikasleekin emanaldi batzuk egiten saiatzen dira: Eguberrietan, Errege Kabalgatan, Inauterietako larunbatean, maiatzeko azoka berezian, ikastaroaren bukaeran... Aur-

ten Anoetan egingo den Dantzari Txiki Egunera joateko asmoa azaldu diote HITZARI. Oraingoan, Igarondo igerilekuan entseatzeko dute eta, botatzen dutenean, Igaralde kaleko lokaletan jarraituko dute.

Udaberriko kide batzuk Iru-ran eta Lizartzan ere aritzen dira irakasten. Iruran Marimi Ugalde alkatea bera ere aritzen da zeregin horretan. «Hamalau urte edo gehiago daramatza. Gustura aritzen naiz eta txikiak sekulako ilusioa izaten dute dantzarako. Arazoa da haurrek gero eta gauza gehia-

## Eskola orduen barruan ere aukera

«Euskaldun guztiek gutxienez fandangoa eta arin arina dantzatzeko jakin behar dute». Helburu horrekin hasi zen iaz Alurr dantzari taldea Ibarako Uzturpe ikastolan, LH1etik DBH4ra —6-16 urte artekoak— bitarteko haur guztiei —139 ikasle guztira— dantza horiek irakasten eskola orduen barruan. Iazkoa «oso positiboa» izan zenez, jarraitu egiten dute aurtun. Ikasle bakoitzak astean ordu erdiko klasea dauka. Fandangoa eta arin arina ikasitakoan, handixeagoek beste euskal dantza batzuk ikasten dituzte.

Itziar Doiartzabal aritzen da irakasten. «Mutil handienek hasieran ez zuten nahi izaten,



Uzturpeko ikasle batzuk dantza ikasten ikastolan. HITZA

baina orain ohitu dira eta gutxiago protestatzen dute», dio irakasleak. Ikastaro amaieran ikastolak egiten duen jaialdian ikasle horiek dantza egin zuten eta «ederki nabaritu»

zela esan zion zuzendariak Doiartzabali. Aurtun, jaialdi horretaz gain, Gabonetan ere ikasitako dantzak kalean erakusteko asmoa azaldu dio HITZARI monitorea. ◀

## EIDER EPELDE

IBARRAN ETA ALTZON IRAKASLE

«Hilero elkartzen gara klaseak koordinatzeko, nola irakatsi eta arazoan aurrean nola jokatu jakiteko»

## ARITZ IGLESIAS

TOLOSAN IRAKASLE

«Nik ere ikastaroetan ikasi nuen dantzan eta gero irakasle izatera iritsi naiz; aurtun matrikula asko igo da»

## ENEO ARTEAGA

VILLABONAN IRAKASLE

«Ikasitakoak erakusteko aukera eman behar zaie haurrei eta gure taldearen emanaldietan tartetxoak egiten diegu»

go dituztela egiteko eta denetara joan nahi izaten dutela», dio alkateak. Jaietan, Kultur Astean, Altsasun, eta Villabonako eta Anoetako Dantzari Txiki Egunetan egin izan dituzte emanaldiak. Kataluniako talde batekin ere elkartrukea egin berri dute.

Villabonako Oinkari dantza taldea herrian bertan, Alegian, Adunan eta Anoetan aritzen da dantza irakasten. «Haurrekin dantza tradizionalak egiten ditugu batez ere. Helduxeagoak diren taldean sartu eta Edu Muruamendiarazekin gauza berriagoak ikasten dituzte», dio Eneko Arteagak. «Emanaldiei buruz, berriz, ikasitakoak erakusteko aukera eman behar zaie haurrei eta gure taldearen emanaldietan tartetxoak egiten diegu. Bestela zaila da aktuzioak lortzea», dio Arteagak. «Aurtun gertatu den bezala, Edu Muruamendiaraz irakasle gisa izatearen fenomeno gertatu da Villabonan. Bera gurekin lanean hasi zenetik jende asko animatu da ikas-tera. Eskakizun gero eta handiagoa dago. Iaz 90 ikasle zeuden eta aurtun 110». Larraulen ere hasi nahi dute urtarrilean. «Adunan helduek ere ikasi nahi dute, baina aurrena umeena ziurtatu behar dugu. Mutilen falta dugu arazoa, eta herrietan apustu hori daukagu. Adibidez, Adunan 15 mutil ditugu guztira. Bitxia da», dio.

Zizurkilgo Bukalari taldea desagertu egin dela esan behar da. Han aritzen ziren batzuk beste talde batzuetara pasatu dira. Hala ere, izango dira dantza ikastaroak urtariletik aurrera.

25 urtez irakasle

Villabonan bertan bada beste talde bat, Oinkari txiki du izena. Laster izena aldatu eta Oinarrri izena hartuko du. Belen Simon aritzen da irakasle gisa eta Leaburun ere aritzen da —Gazteluko ikasle batzuk ere joaten dira—. «25 urte daramatzat dantza irakasten. Hasieran nik egin nituen jantzi batzuk, baina jada zaharrak daude eta pixkanaka berritzen ari gara», dio Simonek. Villabonako haurrekin inguruko Dantzari Txiki Egunezara —Anoeta, Irura, Zizurkil, Villabona, Lazkao— joaten da parte hartzera. Leaburukoak, berriz, herrian bertan aritzen dira jaietan eta horrelakoetan.

Amezketako Arkupe dantzari taldea ere aritzen da dantza irakasten. Jon Zubeldia abaltzisketarra da horren arduraduna. Hamaika urte bete zituen taldeak irailean eta orain baino garai hobekak ezagutu ditu. «Oso jende gutxi dugu gaur egun, hamar bat haur eta 14 urtetik gorako beste zazpi bat lagun», dio. Urtero bezala, ikastaro hasieran herriko eskolan eta komunikabideetan deialdia egin zuten, baina erantzun handirik gabe. Aste-an bi egunetan entseatzeko dute, guztira hiru bat ordu. «Gimnastika egiten dugu lehenabizi, gorputza berotzeko eta gorputza koordinatzen ikasteko, eta gero dantzekin



Udaberri dantzari taldeko ikasle txikiak Igarondo igerilekuan. J. SAIZAR

hasten gara pixkanaka», dio irakasleak. Emanaldi gutxi dituzte azken urteotan. «Duela hiru bat urte asko izaten genituen udan. Zortzi mutil eta zortzi neska baginen dantzak behar bezala egin ahal izateko. Gero lanean edo kanpoan ikasten hasi ziren eta ezin taldea osatu. Orain ahal dugun bezala moldatu behar izaten dugu. Launaka egiten ditugu, zortzi dantzari dantza dela azalduz», dio Zubeldiak. Taldean ia

jantzirik ez dute eta beste taldeei eskatu behar izaten diete emanaldietarako. Musikariak ere herriatik kanpokoak dira. «Musika eskolan egin genuen deialdia, baina inork ez zuen izenik eman», argitu du arduradunak. Emanaldietara eta aurreko entseguetara etortzeagatik ordaindu egiten diete musikariei.

Ikaztegiatarra ere joaten da Jon Zubeldia eskolaz kanpoko aktibitate gisa dantza irakaste-

IKASLEAK ▶ HERRIKA

Hauek dira ari diren ikasle, talde eta monitore kopuruak:

HAURRAK

- Aduna.** 16 haur 2 taldetan, irakasle bakarra.
- Alegia.** 27 haur, 3 talde, monitore bat.
- Altzo.** 25-30 haur 3 taldetan.
- Amezketara.** 10 haur 2 taldetan, irakasle bakarra.
- Anoeta.** 16 haur 2 taldetan, monitore bakarra.
- Areso.** 13 haur 2 taldetan eta bi monitore.
- Berastegi.** 45 haur 3 taldetan banatuta eta irakasle bat.
- Berrobi.** 23 haur 2 taldetan eta irakasle bat.
- Ibarra.** 185 haur eta gazte 7 taldetan 6 irakaslerekin.
- Ikaztegieta.** 30 haur irakasle batekin.
- Irura.** 56-58 haur bi taldetan, bi monitore.

**Larraul.** Urtarrilean hasiko dira.

- Leaburu.** 18 haur bi taldetan eta monitore bakarra.
- Lizartza.** 18 haur bi taldetan eta bi monitore.
- Tolosa.** 130 haur 5 taldetan eta 6 irakasle.
- Villabona.** Oinkari dantzari taldean 110 haur 8 taldetan eta 8 irakasle; Oinkari txiki taldean 50 haur 3 taldetan eta irakasle bakarra.
- Zizurkil.** Urtarrilean hasiko dira.

HELDUAK

- Ibarra.** 55 lagun 3 taldetan eta 2 monitore.
- Tolosa.** Amaro auzoan 22 lagun talde batean eta 2 monitore.
- Villabona.** 60 lagun talde bakarrean eta 3 monitore daude.

ra. Zazpi bat urte daramatza horretan. «Ondo pasatzea bilatzen dugu. Fandangoa eta arin arinarekin hasten dira, bigarren urtean horiek hobetu eta sendotu egiten dituzte eta ondoren beste euskal dantza batzuk ikasten dituzte», dio Zubeldiak.

Leitzan udako jaien aurretik bakarrik entseatzeko dituzte Ingurutxoa eta beste hiruzpalau dantza. Urtero dantza berri bat ikasi eta eskaintzen dute. Uda-

berriko kide bat joaten da irakastera.

Areson 13 haur ari dira ikasten —eskolako gehienak— bi taldetan Leitzako Aurrera dantzari taldeko bi kiderekin. Ikurin dantza, Aureskua, Saski dantza, Zinta dantza... ikasten dute urtero jaietan, Kultur Astean eta horrelakoetan eskaintzeko. Urte asko daramate. «Arazo da 14 urterekin-edo utzi egiten dutela», dio Guraso Elkarteko Joxepi Martzolek.

# Helduek ere badute giro onean ikasteko aukera

Fandangoa eta arin arina ikasten dituzte gehienek; batzuk jarraitu egiten dute gero

Haurrek soilik ez dute euskal dantzak ikasteko aukera. Helduek ere badute eskaintza hori. Tolosaldean behintzat. Villabonan, adibidez, 12-50 urteko 60 bat lagun ari dira Oinkariren ikastaroetan ostegunero Txermingo ikastolako ganbaran. «Kuriosoa da, ikastaro hasieran HITZAN atera iragarkia eta inguruko herrietatik ere etorri direlako: Andoain, Hernialde, Berastegi, Tolosa...», adierazi du Eneko Arteagak. Irailetik Gabonak bitarteko ikastaroa da, baina ekainera bitarte luzatzeko asmoa dute, «beste euskal dantzaren bat ere ikasteko».

Amaroz auzoan Udaberrin aritutako Dori Viloria eta Andoni Gorostidi aritzen dira auzo elkartearen helduekin. «11 urtetik hasi eta jubilatutako» 22 ikasle dituzte. «Hasieran auzoko jaietan zerbait egiteko hasi ziren ikasten, baina gero San Blasera eta Txaramara joaten ere hasi ziren. Hernialden eta Arriben aritu izan dira», adierazi du Viloriak. 11 urte daramatzate irakasle hauek eta aurretik ere baziren dantza ikastaroak auzoan. «Gorabehera asko izan dira taldean. Ikastera joaten diren gehienak auzoko beste gauzetan ere sartuta daude. Batzuk



Helduen talde handia biltzen da ostegunero Villabonan, Oinkari taldearen ikastaroetan. JOXEMI SAIZAR

adinagatik uzten dute, edo bilobak zaindu behar dituztelako», dio irakasleak. Fandangoa eta arin arinarekin hasi ziren, baina geroztik Lapurdi eta Luzaideko dantzak ere ikasi dituzte. Monitoreek ez dute kobratzen, baina urtero ikastaro amaierako afarian opariren bat izaten dute. «Ondo pasatzen dugu, beraiek eta guk. Haurrak

lotsatu eta gaizki pasatzen dute. Helduek barre egiten dute ez badira gogoratzen. Sekulako giroa daukagu eta jaietan egun osoa dantzan pasatzen dute», esan dio HITZARI.

Ibarren ere talde handia dago —55 ikasle guztira— eta bi taldetan banatzen dituzte: fandangoa eta arin arina ikasi nahi dutenak eta zerbait gehia-

go ikasi nahi dutenak. Hastan taldekoak lau hilabetetan aritzen dira, Gabonak bitarte, eta beste taldeak, aipatutako dantzak ikasi ondoren, urtarrietik aurrera bi dantza horiek sakondu —«Lehiaketarako» deitzen den modura— eta herriko eta plazako dantza batzuk ikasten dituzte. Bi monitore dituzte arduradun gisa.

## 23. NAZIOARTEKO TXOTXONGILO JAIALDIA ▶



Guandong Puppet Theater Txinako taldearen emeraldiko uneetako bat, Beotibarren. IMANOL GARCIA



Txinara leihoa erakusketa, Aranburu Jauregian. IRATXE ETXEBESTE

# «Jendetza eta aurkeztutako lanen kalitatea», aurtengo Titirijairen ardatzak

Txinatarren nagusitasuna «agerian» geratu da, baina maila «ikaragarria» izan da oro har; Tolosako eta herritik kanpoko saioak batuta, 20.000 ikusle erakarri ditu

## NEREA URBIZU

Igandean amaitu zen Titirijai 2005, Txinako Guangong Puppet Theatre taldeak Beotiba-

rreren eskaintako *Lignango hargatxo*en magia emanaldiarekin. 23. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia bukatuta, balantzea egiteko astia hartu dute Tolo-

sako Ekinbide Etxeko (TEE) antolatzaileek.

Aurten bereziki azpimarratzekoak aurkeztutako obren kalitatea eta ikuslegoa bera izan dira, Miguel Arretxe jaialdiko zuzendariaren esanetan: «Izugarria izan da jendearen erantzuna. Txinatarren nagusitasuna agerian geratu da, baina ikusi ahal izan diren lan guztiek kalitate ikaragarria izan dute».

TEEkoen dauten arabera, «Tolosatik, soilik, 11.000 ikusle inguru ibili da. *Txinara leihoa* erakusketak bisitari kopuru ezin hobea izan du, 10.000 ikusletatik hurbil, hain zuzen ere. Marka guztiak apurto ditu kopuru honek».

Sari berezi bat ere banatzen dute Titirijain, baina kasu honetan haurrak dira epaile lana hartzen dutenak: 9 eta 11 urte bitarteko haurrak dira, urtero ezberdinak eta zoriz aukeratuak. Aurten Txekiako Vita Marcik konpainiari ematea erabaki zuen epaimahai gazte baina zintzo eta egia honek. Aski ezaguna den *Eduarne Zuri eta zazpi ipotxak* lanarengatik eskuratu zuten txekiarrek haurrek emandako saria. Ez da, ordea, txikiei gustatu zaien bakarra; «izan ere, beste batzuen artean, jaialdian txalo gehien

jaso duenetako emanaldia izan da».

Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia ez da Tolosan bakarrik zentratzen; duela urte batzuk, jadanik, Tolosan izaten diren hainbat antzezlan Gipuzkoako beste herri batzuetan ere antzeztu egiten dira. Aurtengo kasuan, Elgoibarren, Irunen eta Oñatin, esaterako, ibili dira Titirijaiko konpainiak. «Herri hauen laguntzaz 20.000 ikusle inguru izan direla kalkulaten dugu». Ez da inoiz jaialdi honekin horrenbeste ikuslerik egon.

Txotxongiloentzako Testuen Lehiaketan, bestalde, 21 lan aurkeztu ziren, eta Adolfo Canillasek irabazi zuen, *Agian basoa* lanarekin. 4.000 euro irabazi zituen sari gisa eta, gainera, datozen urteetan bere testua txotxongilo taldeek antzezteko aukera ere izango du egileak.

## Txotxongiloentzako aretoa

Behin jaialdia bukatuta, Idoia Otegi eta Miguel Arretxe zuzendariak hurrengo urteari begira jarri dira jada: «Oso gogorra da dena lotzea eta dena ondo eramatea. Horregatik, beste lurraldeetako jendearekin ere komunikazioa izatea ezinbes-

## SARIA

Haurrek osatutako epaimahaiak Txekiako Vita Marcik taldearen 'Eduarne Zuri eta zazpi ipotxak' saritu du

## ARETOA

Titirijairen «arrakasta ukazina» ikusita, Tolosan areto berezi bat egitearen beharra ikusten dute

tekoa da. Hain zuzen ere, hiru aukera ditugu buruan: Txekia, Errusia eta Iberoamerika». Horietako baten bat nahiko aurreratu dago, Tolosako Titirijai ospakizunarekin batera hainbat bideratzealdi berean egin direlako. «Honi esker posible zaigu jaialdi hau ospatzea. Dena lotzeko garaian arazo asko izaten dira: hasteko, Tolosara bidaiatu behar duten guztiak etortzeko posible izatea. Gainera, erakusketetara daktartzen obra guztiak, askotan, pertsonak beraiek baino arazo gehiago ematen dute», Miguel Arretxek azaldu duenez.

Titirijairen «arrakasta ukazina» ikusirik, Tolosan areto berezi bat egitearen beharra ikusten dute Tolosako Ekinbide Etxekoek. Txotxongiloen munduan murgiltzen den jende eta panpin guztiak leku zehatz eta seguru batean ikusteko eta haietaz gozatzeko aretoa, alegia. Areto hau Euskal Herria Plazan egiteko asmoa dute, aurrerago. Bertan, txotxongiloen behin betiko museo egiteko asmoa ere badute, arte honetaz gehiago gozatu ahal izateko.





LARA LOPEZ ▶ LA CAIXA-KO BEKAREN IRABAZLEA

# «Ondo defendatzen jakin nuen beka lortzerakoan motibazio handia nuela»

Bartzelonan Gatazken gaineko ebazpena eta bitartekotza masterra egiteko La Caixa-ko beka lortu du tolosarrak; «loteria egokitu» zitzaiola pentsatu zuen

NOELIA LATABURU

23 urteko gazte tolosarrak irailan jaso zuen berria. Bere azken ikasturtea bideratuko zuen berria, hain zuzen. La Caixa-k gizarte arlorako eskaintzen dituen beka bat hari egokitu zitzaien. Lara Lopez Psikologian lizentziatua da, eta egun Arazo edo gatazken gaineko ebazpena eta bitartekotza masterra ikasten ari da, Bartzelonan (Katalunia). Ez da, ordea, ikasketak burutzera atzerriara jotzen duen lehen aldia. Erasmus bekarekin Lisboan (Portugal) egon zen duela bi urte. Aukerarekin «oso pozik» azaldu da, eta esperientzia honi «probetxu ona» atera ahal izatea du helburu erronka berri honen aurrean. HITZAREkin jardun du gazteak bekaren, bere ikasketen eta esperientzia honen gainean.

**La Caixa-ko beka eman berri dizute. Zertan datza?**

Arazo edo gatazken gaineko ebazpena eta bitartekotza masterra ikasketotan nintzela aurkeztu nuen bertan. Planifikazio guztia erabat garatuta izatea nahi zuten, hala nola, non burutuko nituen ikasketak horiek, zein ordutegirekin, nola izango zen nire egonaldia...

**Zer sentitu zenuen berria jasotzerakoan?**

Izugarria izan zen. Iraila aldean jakin nuen, eta loteria egokitu zitzaidala pentsatu nuen. Nire familia eta inguruok ere oso pozik jarri ziren, eta aukera hori ezin nuela galdutako pentsatu nuen. Ez nuen segundo bakar batean ere zalantzarik egin.

**Gizarte arlorako bideratutako beka da.**



HITZA

Hala da. Guztira, 70 beka eman zituzten, denak ere nola edo hala gizarte arloekin zerikusia duten ikasketetarako. Nire kasuan zuzena da erlazio hori, pertsonen arteko harremanen inguruan aritzen garelako, bai eta hauen aurrean zer egin ikasten ere.

**Ikasketa osagarriak dira hauek. Zer gehiago egin duzu?**

Psikologian lizentziatu nintzen iaz EHUtik. Betidanik nahi nuen gizakiekin harreman zuzena zuen zer edo zer egin. Oso gustura sentitu naiz egindakoarekin eta, orokorrean, oso pozik nago.

ra ikusten eta ez dira aurkeztu ere egiten. Nirekin barre egin zuten, oso motibatuta nengola ikusi zuten nire eskaeran. Nire irakasleen erreferentzia gutunak ere zituzten. Agian horiek izan ziren garrantzitsuenak beka eskuratzerakoan.

**Eta orain, zerbait bete behar al duzu beka jasotzearen truke?**

Ezer berezirik ez. Hiru hilabete behin txosten bat aurkeztu behar dut, non egindakoaren berri emango dudana. Halaber, nire irakasleek sinatu behar dituzte dokumentu hauek.

**Zer irakasten dizute masterrarean?**

Oso interesgarria da, jende gutxi gaude eta partaidetza oso altua da. Gehienak lanean ari diren abokatuak eta psikologoak dira, eta haien lanean sortzen diren arazoak praktikara eramaten ditugu. Asko ikasten ari naiz bertan.

**Bartzelonan beste zerbaitean aritzen al zara?**

Bai, hemen nagoen denbora ahalik eta ondoen aprobetxatu nahian, Bake Kulturako diplomatura ateratzen ari naiz. Bakearen eta gudaren gainean dugun ikuspegi okerra ikasten dugu, baita giza eskubideak eta indarkeriari nola aurre egin, besteak beste. Kultur eta izate anitzeko jendea gaude bertan.

**Ez da, baina, kanpoan izaten zaren lehen aldia, ezta?**

Ez. Duela bi urte Erasmus beka egokitu zitzaidan, eta Lisboara joan nintzen karrerako laugarren urtea egitera. Ikasle garai-ko une bat aukeratu beharko banu, hau litzateke, sekulako esperientzia izan baitzen.

## BEKA

«Beka eman zidatela jakin nuenean loteria egokitu zitzaidala pentsatu nuen, izugarria izan zen»

## IKASLE GARAIA

«Nire ikasle garaiko une bat aukeratu beharko banu Lisboara Erasmus bekarekin joan nintzenekoa litzateke»

## ETORKIZUNA

«Ez dakit zer egingo dudana etorkizunean; ikasketak amaitzean ea proiektu interesgarri bat lortzen dudana»

## IKASKETAK ▶

Tolosako neska gazteak honako ikasketak burutu ditu:

**Batxilergoa.** Tolosako Eskolapioen ikastetxean.

**Lizentziatura.** Psikologia, EHU, Donostiako Psikologia fakultatean.

**Diplomatura.** Bartzelonako Bake Eskolan ateratzen ari da Bakearen Kultura diplomatura.

**Osagarriak.** Arazo edo gatazken gaineko ebazpena eta bitartekotza masterra, Bartzelonan, La Caixa-ko bekaren bitartez.

## Etorkizunerako ametsa zein duzu?

Amets asko ditut, baina une honetan izan dudana aukera hau aprobetxatzen ari naiz ahalik eta gehien ikasteko, masterrarekin nahiz diplomaturarekin. Behin biak amaitzen ditudanean, proiektu interesgarrien bat iriteten bada hartuko nuke, baina ez dakit non, nola edota zeinek. Unea iristean erabakiko dut hori guztia.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000  
etxetara

## ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

## TOLOSA ▶ ARETO FUTBOLA

# Ezustekoa ematekotan izan da Hegoalde Mostolesekikoan

Lehen zatian 2-1 joanda, sei minututan 3-5 aurkako emaitzarekin amaitu dute

## ERREDAKZIOA

Larunbatean jokatu zuen Hegoaldeko partidua, Mostolesko (Espainia) Tecnocasa taldearen aurka, etxean, eta ongi aritu arren, galduta egin zuen, 3-5eko azken markagailuak islatu zuen moduan.

Madrildarrak saikapenean bigarren daude, eta larunbatekoan erakutsi zuten «horren zergatia: talde sendoa da, batura oso, eta teknikoki maila handikoa», Hegoaldeko heldunek adierazi zuten. «Merezita irabazi dute», zioten.

Baina Hegoaldeko «hestu» hartu zituen bisitariak, «tolosarren jokoari ezer gutxi egotzi diezaiokegu», adierazi zuten, «aurkariaren nagusitasunaren jakitun, atzeko lanean kontzentrazio handiz» jokatu zutela nabarmenduz, eta «sendo, eta kontraerasoko jokaldietan min eginez».

Edozein moduz, partiduaren nondik norakoak hasiera-hasiari oinarri jarri ziren:



Etxeok mostolestarren erasoari aurre egiten. HEGOALDE

«Mostolesko taldea baloi jabetzan nagusitu zelarik, gol aurkarak sortuz eta Hegoalde, berriz, defentsan, irmo», xehetu zuten. Horren harira, Idoia Manrike etxeko atezainaren lana aitatu zuten, barakaldoarrak «sekulako partidua» egin zuela adieraziz, «jaurtiketa ugari gelditu, bi falta-penalti besteak beste, buruz burukoetan bikain» jardun zuelarik, ordezkariak hitzetan.

Horrela, Hegoalde hirutan jarri zen aurretik, markagai-

luan: kontraerasoan min egiten asmatuta, lehenengotik gol egiteko zorian egon eta «2.ean, zaust!», adierazi zuten, Emi Ugartek egin zuen 1-0koa, 7. minutuan; 2. minututara berdinketa eta 14.ean berriz ere Emi izan zen golegile fin, 2-1ekoan. Lehen zati horretan «oso ondo» eutsi zioten tolosarrek.

Baina atsedenaren bueltan, 6 minututan, madrildarrak aurretik jarri ziren: 2-2, 3-2 (Vicky Delgadok, 22.ean penaltiz), 3-3, 3-4, 3-5eko azken errematea

31.ean egin zuten. Zati honetan ez zioten partiduan sartzeko aukerarik ere eman etxekoei.

Larrearen, Hegoalderen entrenatzaileetako baten ahotan jarrita, «buruarekin gehiago jokatu behar genuen, argiagok izan, eta jokaldi zenbaitetan hotzago aritu», azaldu zuen. Penatuta ere ageri zen etxekoen entrenatzaile bilbotarra «aurkari oso gogor baten aurka emaitza positiboa lortzea» eskuan izan zutelakoan. Hala ere, «taldearen eboluzioarekin gustura» ageri zen, «oraindik denbora gutxi» igaro delako berak eta Salvadorrek taldea hartu zutenetik eta beren sistemara ohitzea betarik ez dutelako oraindik, ziotenez.

Hegoalde saikapenean atzeko leku arriskutsuetan dago, 11., hortik atera beharrean. Hurrengo jardunaldia, ordea, liderraren aurkakoa du, Navalcarneron, eta bi bajarekin joanen dira: Ugarte, lesioagatik eta Barrio, zigorragatik. Lopez berreskuratu dute, ordea.

## LEITZA ▶

## ‘Musika jan!’ egitarauarekin Landan, gaur, otordua doinuz

Plazaola Patzuergoak eskualdeko jatetxeak ezagutzera emateko egitasmoa da hau

## J. ASTIBIA

Gaur bazkalordua zuzeneko musikarekin egiteko aukera izanen dute Landa jatetxera bertaraten diren bazkaldarrek: Rouge taldea izanen da bertan.

Plazaola Patzuergoak *Musika jan!* egitasmoa jarri du abian, eskualdeko jatetxeak eskaintzen duten zerbitzuari «balio erantsia gehitzeko» asmoz, «bakzari eta afaritako garaian, zuzeneko musika saioak antolatuz». Horrela, patzuergoko kide diren eta parte hartu nahi izan duten jatetxeak, zortzi dira, tartean Leitzatik, Landa jatetxea.

## TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212  
▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

▶ Asteasu. Medikua: 692423

▶ Baliarrain. Medikua: 889003

▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361

▶ Bidegoian. Medikua: 681134

▶ Ibarraldea. Osasun etxea:

672411

▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329

▶ Irura. Osasun zentroa: 690720

▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800

▶ Orendain. Medikua: 655595

▶ Oresa. Medikua: 682228

▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amarozko dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

**Garraioak.**

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

**Besterik.**

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675888

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egotza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

## LEITZA ▶ POLITIKA



## Xabier Egunean eta Espainiako Konstituzioarenean, ikurrina jarrita

J. Astibia ▶ Abenduaren 3an eta 6an, Nafarroaren Egunaren ospakizuna bata eta Espainiako Konstituzioa sinatu zutenekoa bestea, ikurrina jarrita azaldu zen Leitzako udaletxeko balkoian —Xabierko Frantziskoren eguneko irudian—. Horrela, larunbatean *ikurrina ere nafarren ikurra* dela aldarrikatzen zuen pankarta zegoen

ondoan, *UPN eta PSNri* zuzenduz. Herenegun, berriz, *gaur ez da ezer ospatzen* zioen pankartak, Espainiako Konstituzioari erreferentzia eginez, eta *eman hitza Euskal Herriari* aldarria zeraman. Biak ala biak, biharamonerako falta ziren balkoitik, berriz ere, *Hai-ze txar batek hartuta eramanak*, agian. JAIONE ASTIBIA

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ HALTEROFILIA

# Espainiako 17 urte azpikoen Txapelketan ere bikain pultsulariak

Danena-Olaederrako pultsulari guztiak lehen hamarren artean sartu ziren eta birek lehen postua lortu zuten

ERREDAKZIOA

Beste behin, Danena-Olaederrako pultsulariek emaitza ezin hobekak lortu dituzte. Iruñean jokatu berri den Espainiako 17 urte azpikoen Txapelketan Jon eta Igor Sasiain anaiek bere pisu-mailan irabaztea lortu zuten. Aipatzekoa da Igorrek 14 urte besterik ez dituela eta txapela hau hirugarrena dela, 15 urte azpikoa eta teknikakoak ere lortu baititu. Jon Ander Iriartek eta Mikel Quintanak hirugarren eta laugarren postua lortu zuten beren pisu-mailan. Angel Martin zazpigarrena izan zen eta Iker Hernandez hamargarrena.

Jon Sasiainek Euskadiko marka berria ezarri zuen arrankadan, 102,5 kilo altaxatea lortuz. Espainiako bi denboretako marka berria lortzeko aukera izan zuen, 133 kiloko altaldia eginez; baina azken unean barra erori zitzaion. Jon



Iker Hernandez, Mikel Quintana, Jon Ander Iriarte eta Igor Sasiain ere Espainiako 15 urte azpiko Txapelketan aritu ziren. i.g.

Ander Iriarte Euskadiko 15 urte azpikoen marka berriak lortu zituen: arrankadan, 95 kilo; bi denboratan, 115 kilo; eta total olimpikoan, 210 kilo.

Hilaren 17an A Coruña egingo den Espainako Kluben

Arteko Txapelketa jokatu du Danena-Olaederrak. Horko emaitzak kontuan hartu gabe, taldeko pultsulariek Espainiako 8 txapelketa, 5 bigarren postu eta 3 hirugarren postu lortu dituzte.

ZIZURKIL ▶ AGENDA 21

## Hiri kalitateak eta mugikortasunak jaso zituzten alderdi negatibo gehienak

Agenda 21eko prozesuaren herri batzarrean 23 lagun izan ziren

ERREDAKZIOA

Tokiko Agenda 21 prozesuak herritarren bizi kalitatea hobetzeko herri plan bat lantzea du helburu, eta hainbat fasetan banatzen da. Egun Zizurkilaren udalerrien egoera islatuko duen diagnosis burutzen ari da. «Horretarako beharrezkoa da herritarrek hainbat arlotan Zizurkilgo egoerari buruz duten ikuspegia eta iritzia ezagutzeari», azaldu du Udalak. Azararen 17an Atxulondo kultur etxean egindako herri batzarrean «herriaren alderdi negatiboak eta positiboak adierazteko aukera izan zuten etorritakoek, eta 23 lagun elkartu

ziren», gaineratu dute ordezkariak.

«Hiri kalitatearen eta mugikortasun arloan agertu ziren alderdi negatibo gehienak», azaldu dute. Besteak beste, «herrigunean protagonistak autoak direla adierazi zuten, eta oinezkoentzat lekurik ez dagoela».

Bertaratutako iritziak, «herri nortasuna lortzeko errepidea kanpora atera eta zentro neuralgiko bat sortu beharko litzateke Zizurkil Behean». Bestalde, Zizurkilgo bi gune nagusien arteko lotura «eskasa» dela eta auzoak «gaizki komunikatuta» daudela adierazi zuten. «Etxebizitza, zerbitzuak,

ekonomia, udal kudeaketa eta euskara ere aztergai izan ziren», dio Udalak.

Herri Batzarrean jasotako ekarpenekin udalerrien diagnosis osatuko dute eta, dokumentu honetatik abiatuz, zenbait helburu finkatuko dituzte. «Hauek izango dira udalerrira iraukorrago lortzeko diseinatutako den Ekintza Planaren oinarri», zehaztu du Zizurkilgo Udalak.

«Herritarren parte-hartzea ezinbestekoa da Agenda 21 proiektuan» eta, horregatik, prozesuaren fase ezberdinetan berriz ere herri batzarreko deialdia zabalduko dute, Udaletik azaldu dutenez.

ALEGIA ▶

### Dokumentala ikusteko aukera Gaztetxean

Alegiako Gaztetxearen 18. urteurrenaren baitan, gaur, 21:00etan, *Los espigadores y la espigadora* Frantziako dokumentala ikusteko aukera izango da.

BELAUNTZA ▶

### Kultur Etxea itxita egongo da hilaren 19ra arte

Kultur dinamizatzailearen oporraldia dela eta, Belauntzako kultur etxea itxita dago egunotan. Berrito irekiko ditu bere ateak hilaren 19tik aurrera.

TOLOSA ▶ GIZARTEA



Babarrun lehiaketaren une bat. i. GARCIA

### Saneamientos Elosegiren 50. urteurrena

Saneamientos Antonio Elosegiren enpresak 50 urte bete ditu aurren, eta urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatuta dituzte. Azkena bezero eta langileen arteko babarrun lehiaketa izan da. Maila handiko epaimahaia izan zen sukaldarien lana epaitzen, tartean Martin Berasategi. Prestaketa sari nagusia Frascuelo elkarteak eraman zuen, eta aurkezpenaren sari nagusia Paco Bravok eta Jose Artolak. Txapelak, oroigarriak eta balneario baterako bidaia jaso zituzten irabazleak. Lehiaketaz gain, bazkaria izan zen, eta baita beste ekitaldi batzuk ere. *Vaya Semanita* telebista saioko Andoni Agirregomezkortak animatzaile lanak egin zituen. Aurpegi ezagunak ere ikusi ziren, Manuel Caballero toreatazalea, Lurdes Bedia aktorea, Abraham Olano txirrindulari ohia, Ricardo Ugarte eskultorea edo Jose Antonio Sainz Alfaro Donostiako Orfeoien zuzendaria, esaterako.

TOLOSA ▶

### Eguberrietako Txapelketan izena emateko aukera

Areto futboleko XXIV. Eguberrietako Txapelketa, Shanti Trofeoa, jokatu da aurki Tolosan. Izen ematea irekita dago dagoeneko. Horretarako Shanti Kirolak dendara joan beharra dago hilaren 15a baino lehen. Maila ezberdinetan jokatu dute neska eta mutil gaztetxoek. 1992. eta 1993. urteetan jokatuak infantil mailan aritu ahal izango dira, bai neska eta bai mutilak; 1994. eta 1995. urteetakoak, alebinez; eta 1996. eta 1997. urteetakoak, mutilak bakarrik, benjaminetan.

AMEZKETA ▶

### Bertsolari Txapelketarako autobusa

Amezketan ere Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusira joateko autobusa antolatuta dute. Herriko tabernetan eman daiteke izena, eta momentuan ordaindu behar da. 9 euro da ordaindu beharrezkoa. Igandera arte, hilaren 11, egongo da zabalik izena emateko epea. Autobusa, finalerako egunean, hilak 18, goizeko zortzietan aterako da herriko plazaetik. Puntualitatea eskatzen dute autobusaren antolatzaileek. Era berean, oraindik izena eman ez dutenei azken egunera arte ez itzarroteko eskatu diete.



**AGENDA ▶**

**ANTZERKIA**

**Orendain.** *Inaxitoren ametsak* bertso-antzerkia. 17:00etan, udaletxean. Segidan, Gabonetako kantu entsegua egingo dute, afari-merienda batekin amaitzeko.

**DEIALDIAK**

**Ibarra.** Urtero bezala, San Bartolome parrokiako Miso taldeak Merkatu Txikia antolatu du. Indiarra, Hondurasera eta Ekuadorrera bidaliko dute jasotako laguntza. Materiala parrokiako lokaletan utz daiteke, 17:00etatik 20:30era.

**Tolosa.** Galtzaundi Euskara Taldeak ludoteka antolatu du Egunerrietan, hilaren 26tik urtarrilaren 6ra bitartean, astegunez, 09:00etatik 13:30era. Izen-ematea Galtzaundiren egoitzan (Nafarroa et., 6-behea).

**Tolosa.** Sortzez Garbiaren eguneko ospakizunak: Santa Mariako 11:00etako mezan, Santa Mariako kaperak abestuko du. Eta meza nagusiaren ondoren, udaletxeko arkupetan, kontzertu berezia eskainiko du Udal Txistulari Bandak.

**ERAKUSKETAK**

**Villabona.** Seve Iglesiasen pintura erakusketa. Hilaren 31 bitarte, 18:00etatik 20:00etara, Gurean.

**IKUS-ENTZUNEZKOAK**

**Alegia.** Agnes Vardaren *Los espigadores y la espigadora* dokumentala, 21:00etan, Gaztetxean. 18. urteurrena.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.  
Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

**IRRATIA**

**Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)**  
18:00-21:00. Durangoko Azokaren inguruko saio berezia (errepikapena).  
21:00-22:00. *Gora Euscadi* Christulari Matraiako Irratiaren saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.  
22:00-23:00. *Gau bero* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

# Ahoz aho

**TOLOSA ▶** Hirukide Gainberriko Guraso Eskolan hizkuntz transmisioari buruzko ikastaroa egin berri dute; «espero baino arrakasta handiagoa izan du», diote



Hirukide Gainberri elkartutako gurasoak, zenbait ariketa egiten. HITZA



«Nahiz eta hasieran lotsa pixka bat pasatu, giro ona sortu zen», azaldu dute ikastetxeek. HITZA

**ERREDAKZIOA**

**E**skualdeko beste hainbat ikastetxe eta txokotan bezala, eta haurren heziketaren eta gurasoen eta umeen arteko harremanaren garrantziaz jabetuta, Hirukide Gainberri Haur Eskola martxan jartzea erabaki zuten. Noizbehinka elkartzten dira, gaiak landu eta iritziak eta esperientziak trukatzeko; oraingoan, hizkuntz transmisioari buruz aritu dira. «Haur Eskolan garrantzi handia ematen diogu hizkuntz transmisioari, eta hau etxetik eta eskolatik eman behar dela uste dugu. Horretarako, gurasoei hainbat aholku eta material emateaz gain ikastaro hau antolatzea erabaki genuen», azaldu dute.

Zenbait helburu ditu ikastaroak. Batetik, «gurasoak euskarazko abestiz eta dantzez hornitzea, etxean, kalean, parkean, kotxean... abestu eta dantzatu ahal izateko». Bestetik, ikastetxean egiten dutena etxean ere jarraipena izan dezan nahi dute. Eta, azkenik, «euskararen erabilera bultzatzea eta haurrek eta gurasoek ondo pasatzea» dute xede.

Bi saio antolatu zituzten 1 eta 3 urte bitarteko haurren gurasoentzat, eta «espero baino arrakasta handiagoa» izan zuten: «Gurasoek gogo handia jarri zuten, eta nahiz eta hasieran lotsa pixka bat pasatu —helduen aurrean dantzatu eta abestea ez da erraza— oso giro ona sortu zen, eta denek oso ondo pasatu zuten». Ikastaroren amaieran materiala banatu zuten, abestien letrekin eta musika non lortu adieraziz.

**AGURRAK ▶**

**HITZA, zorion agurren tartea**  
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:  
**HITZAren egoitzetara:**  
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA  
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!